

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

2022ko zergak eta tasak ordaintzeko borondatezko epea

Nik, Artziniegako Udaleko alkate Joseba Vivanco Retesek:

Jakinarazten dut: 2022ko urriaren 20tik abenduaren 20ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, udal zerga, tasa eta prezio publikoen 2022ko ordainagiriak.

Eragindako zergadunek udalaren gordailuzaintzan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, bulego orduetan, epe horretan.

Era berean, zergadunei gogorazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal izango dutela.

Aipatutako epea bukatutakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, indarrean dagoen Dirubilketarako Arautegi Orokorrean ezarritako xedapenen arabera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Artziniega, 2022ko irailaren 28a

Alkatea

JOSEBA VIVANCO RETES